

## C. Tangana, Berto Romero eta 'Go!azen' formatu erraldoian

SERGIO BASURKO

Zinemaldiko aretorik handiena den Belodromoak *El otro lado* eta *Esta ambición desmedida* telesailen estreinaldiak hartuko ditu 71. edizio honetan, baita *Go!azen* telesailaren denboraldi berriaren aurkezpena ere.

Igandean (hilak 24), 17:00etan, *El otro lado* estreinatuko da, Movistar Plus+ taldearen jatorrizko telesail berria, sei atalez osatua, Javier Ruiz Calderak eta Alberto de Torok zuzendua eta Berto Romero umoristak sortua (halaber, Romero da idazleeta eta protagonista nagusia). Telebistako komiko ospetsua beldurrezko generoan murgilduko da lehendabizikoz Nachoren istorioarekin. Nacho parnormalean espezializatutako kazetari xelebrea da. Emanaldira etorriko direla berretsi dute Berto Romerok berak, telesailaren zuzendariak eta antzezleeta askok: Andreu Buena-fuente, Nacho Vigalondo, Eva Ugarte eta María Botto.

Ostegunean (hilak 28), 19:30ean, *Esta ambición desmedida* telesailaren txanda izango da. Santos Bacanak, Cris Trenasek eta Rogelio Gonzálezek zuzendua, hiru zati ditu, C. Tanganaren 'Sin cantar ni afinar' musika-bira sortu eta abian jartzeko prozesua



Artista madrildarraren 'anbizio neurrigabea' erakusten du telesailak.

aprobetxatzen dutenak artistaren sorkuntza-bidaia pertsonala esploratzeko. Telesailaren estreinaldian abeslari madrildarra eta proiektu dokumentalaren sortzaileak izango dira.

Ostiralean, (hilak 29) 18:30ean, *Go!azen* telesailaren hamargarren denboraldiko lehen atala aurkeztuko da Belodromoan, baita taldeko kide berriak ere; izan ere, emanaldia hasi aurretik ikuskizun bat eskainiko dute kide berriek. Jabi Elortegik eta Itziar Gomezek zuzendutako gazteentzako programa da eta ETBn eman diren bederatz denboraldietan arrakasta handia izan du telesailak. Zorroztasun handiz zuzendutako udaleku

bateko gazte talde baten bizipenak kontatzen ditu, musikaren medioz.

Hiru telesail horien emanaldiez gain, hilaren 30ean, Zinemaldiaren amaiera-ekitaldia zuzenean emango da. Ekitaldia 18:45ean hasiko da *Bâtiment 5 / Les indésirables* filmaren emanaldiarekin (film hori izango da, izan ere, Perlak sailari amaiera emango diona), eta 71. edizioko sari-banaketaren emanaldiarekin jarraituko du. Saioari amaiera emateko, *Dance First* emango da, Sail Ofizialari amaiera emango dion pelikula, hain zuzen; gainera, filmaren lantaldeak aurkezpena egingo du Belodromoan bertan.

## Belodromoa sumendi bilakatuko da ikasleen begietara

DIPC Donostia International Physics Center



Sumendien eztrandak barra-barra.

S.B.

2019az geroztik, Donostia Zinemaldian programatzen diren eskola-zinemako saioek DIPCren eta Euskadiko Filmmategiaren lankidetzara dute. 80 bat ikastetxetako 13.000 ikasle baino gehiago joango dira Belodromoko sei saioetara, goizeko ordutegian, irailaren 22an (ostirala) eta irailaren 25etik (astelehena) 29ra (ostirala).

Aurten, ikastetxeak Belodromoan ekimeneko saioek historiaurrea bidaiatzeko eta sumendiak hobeki ezagutzeko aukera emango dute, ikasleei zientziaren irudi positiboa helarazteko eta Donostiak ikerketa zientifikoarekin duen lotura handia erakusteko.

Belodromoko pantaila erraldoian *Boonie Bears: abentura historiaurrean* filma euskarara bikoiztuta

emango da, Leon Dingek zuzendutako animazio-filma. Emanaldiarekin batera, sumendien inguruko aurkezpen berezi eta dibertigarri bat egingo da.

Janire Prudencio Granadako Unibertsitateko bulkanologoa etorriko da gonbidatu gisa. Prudencio 20 sumendi aktibotan baino gehiagotan lan egin du, Japoniatik Antartikara, baita Islandiako eta La Palma uharteko azken erupzioetan ere. Horri esker, sumendien fenomeno oso ondo ezagutzen du. Bere lana sumendien barne-egituraren azterketan eta sumendien erupzioen aitzindariak identifikatzeko adimen artifizialeko tekniken aplikazioan oinarritzen da. Prudencio arduratuko da sumendien artean izandako bizipenak Belodromoko umeekin partekatzea.

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

EUSKADIKO FILMATEGIA FILMOTECA VASCA

DIPC Donostia International Physics Center

DONOSTIA Zinema hiria, zientzia hiria Ciudad de cine, ciudad de ciencia City of cinema, city of science

IKASTETXEAK BELODROMOAN

Iraila 22, 25-29 Septiembre